



Museoetan antolatzen dituzten festa giroko jardueretara jende ugari biltzen da. Argazkian, Irungo Oiaso museoa, 2006ko inaugurazioan. CARI GARAJALDE / ARCAZNI PRESS

Museoen Eguna, jardunez bete

NAIARA ARTEAGA

Maiatzaren 18a Museoen Nazioarteko Eguna da. Gero eta ezagunagoa bihurtzen ari da Euskal Herrian, eta baita nazioartean ere. Egun horretan, mundu osoko museo askok beren ateak zabalduko dituzte eta bisitariari hainbat jarduerara eskainiko dizkiete. Hala nola, dohainik gidatutako bisitak, haurrei zein helduei zuzendutako jolasak, eta opariak edo oroigarriak.

'Aldaketa sozialaren eta garapenaren eragile' izenarekin, iganderako jarduerak antolatuko dituzte hainbat museoek.

Museoak, aldaketa sozialaren eta garapenaren eragile da aurtengo ICOM Nazioarteko Museoen Kontseiluak museoaren egunerako aukeratu duen mezua. Horren bitartez, etika eta heziketa arloan museoek gizartearen duten lekuari erreferentzia egiten diote. Izan ere, egun museoak ez dira objektuak gordetzeko leku soilak, gehiago ere badira: erakusketa eta tailerren bitartez, gizartearen era aktiboa parte hartzen laguntzen diete erkidego multikulturalei.

Nazioarte mailako jardueratan, aurtengo Internetak leku berezia izango du. *Second Life* plataforma digitalaren bitartez, mundu osoko hainbat museoetan haien artean harremanetan jartzeko aukera eskainiko dute. Proiektu horrek lagunen arteko distantziak murriztuko ditu, *Second Lifen* parte hartzen dutenek museoek antolatutako dituzten hainbat jardueratan parte hartzeko aukera izango baitute, eta baita horiek hobetzeko proposamenak egiteko ere.

Museoaren eguna ospatzeko ideia ez da berria. 1977an ICOMek Moskun (Errusia) egindako Asanblada Orokorrean hitzartu zen urtero maiatzaren 18an ospatuko zela museoaren nazioarteko eguna. Gainera, egun horretan era ezberdineko jarduerak antolatuko zituztela adostu zuten.

Oro har, adin guztietako lagunei, profesionaleri eta erakunde eta gobernuei zuzendutako hainbat jarduerara proposatzen dituzte. Besteak beste, museoaren eguna sustatzeko kartelak, postalak, pinak eta irudiak egitea eta jendeari ematea, eta museoetan adituekin bisita bereziak edo sarrera dohainik eskaintzea. Era berean, familiei zuzendutako jarduerak egitea proposatzen dute, museoak umeentzat ere interesgarriak izan daitezkeen.

Gobernuek eta beste erakunde publikoen kasuan, ondare kulturelari dagozkien legeak egun horretan edo ingurukoetan onartzea da ICOMekoek egindako beste iradokizunetako bat. Horrez gain, museoaren nazioarteko eguna sustatzen lagunduko duten zenbait jarduerara kultural bultzatzeko proposatzen diete. Esate baterako, museoaren egunarekin lotuta hainbat jarduerara kultural antolatzea, maiatzaren 18an bertan, edo beste-lan, jarraian dauden egunetan.

Alessandra Cummins ICOMeko presidentek museoaren nazioarteko egunaren beharra azpimarratu du, museoek gizartearen egiten duten lana aitortzeko bitarteko bat baita. Bere aburuz, museoek etorkizunera begira mugimendu berritzaile bat eratzeko lortuko dute. Alessandra Cumminsek adierazi duenez, iragana orainaldiaren argitan interpretatzeko balioko du, eta etorkizun distiratsua goa ekarriko du gainera.

Gaztari buruzko azalpenak Uztarrozen

Nafarroako Erronkariko gazta egiteko erabiltzen diren materialak eta prozedura ikus daitezke Gaztaren Museoan.

N. ARTEAGA

Euskal Herrian tradizio handia dauka ardi-esnez egindako gaztak. Mendeetan zehar abeltzainek garatu izan dituzten teknikek eta tresnek esnetik gazta egitea bideratu diete. Produktu horren inguruko jakinarrak dira, hain zuzen, Uztarrozeko gazta museoan (Nafarroa) ikusgai daudenak.

Erronkaribarko iparraldean kokatua dago Uztarroz, eta Nafarroan sormarka duen bigaztetako bat da ekoizten da bertan, Erronkariko gazta. Abendutik uztaiera bitartean produzitzen duten gazta egiteko behar diren materialak, tresnak, arropak eta argazkiak

dira, besteak beste, gazta museoan ikusgai dauden elementuak.

Jakingarrien artean gaztagintzan erabiltzen dituzten tresnak daude: esnea prestatzeko lapikoak, eta gero mamitik bereizteko beharrezko lanabesak. Azken horien artean daude moldeak, tamaina handiko zein txikiko gazta egiteko eta izkinatan forma berezia lortzeko beharrezkoak direnak. Hiru material erabili izan dituzte abeltzainek nagusiki gaztagintza prozesuan: zura, burdina eta zeramika.

Artzain-arropak dira gazta museoan ikus daitezkeen beste elementuetako batzuk. Baserritarren jantziez gain, neguan abeltzainek erabiltzen dituzten estalkiak daude ikusgai, eta baita ardi-larruz egindako txapelak eta estalkiak ere. Hiru koloretakoak daude: grisa, zuria eta beltza. Men-



Material ezberdinetako moldeak, esnea prestatzeko lapikoak eta lanabesak daude Gaztaren Museoan. ASIER AZPIRRIKUETA

dira joateko erabiltzen dituzten makilak eta alpagatak ere daude jantzien ondoan. Horiez gain, gazta egiteko erabiltzen dituzten arretako mantal zuria daude.

Ardiek eramaten dituzten joarak dira gazta museoan beste elementuak. Horiakin batera, azien da markatzeko abeltzainek erabiltzen dituzten burdinak ikus daitezke.

Museoko bisitarekin amaitzeko, Erronkariko gazta gaztandegian nola egiten ikusteko aukera eskaintzen dute. Honela, esnea lortzeko erabiltzen dituzten tres-

Baserritarren jantziak eta neguan abeltzainek erabiltzen dituzten estalkiak ikus daitezke

nak eta materialak nola erabiltzen dituzten, eta esnea gotortzean jateko prest dagoen gazta lortu bitarteko prozesua zein den ikusteko aukera ematen dute. Bisita amaieran Erronkariko gazta erosteko aukera dago.

Gaztaren museoara joateko aldeztu aurretik 948893236 telefonora deitu behar da, horrela bisita gidatua egin ahal izateko.